

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

77/2021 Mozioa, urriaren 20koa, Elikadura Katearen Legean ezarrita dena kontrolatzeari buruz, bereziki mahatsarentzat ekoizpen-kostuaren gainetik dauden prezioak bermatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko urriaren 20an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

77/2021 Mozioa, urriaren 20koa, Elikadura Katearen Legean ezarrita dena kontrolatzeari buruz, bereziki mahatsarentzat ekoizpen-kostuaren gainetik dauden prezioak bermatzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Elikadura Katearen Legearen kontrolean eskumenak dituzten administrazioei eskatzen diete betearazi ditzatela lege horretan araututako xedeak, bereziki operatzaileen arteko elikadura-kontratu idatzien formalizazioa, salerosketako kontratuen erregistroak sortzea, prezio ofizialen behatokiaren bidez ekoizpen-kostuei buruzko azterlanak egitea eta argitaratzea, bai eta ordaintzeko epeak eta baldintzak. Horrenbestez, ikuskaritza-jarduera areagotuko du, baita legea bete ezean ezarri beharreko zehapenak ere.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote lankidetzan jardun dezala administrazio eskudunekin helburu horiek betetze aldera, salatu ditzala legearen ez betetzeak, halakoren berri izanez gero, eta susta ditzala merkataritza praktika onak elikaduraren arloko kontratazioan.

3. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote areagotu ditzala Elikadura Industrien Kalitate Zuzendaritzak mahatsaren salerosketako kontratuetan egiten duen ikuskaritza-kontrolak, ardogileak babesteko eta ekoizpen-kostuen gainetik ordaindu dakien.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, Eusko Jaurlaritzarekin batera, aholkua, prestakuntza eta lanabesak eman diezazkiela ardogileei, euren ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-etekinak hobetu ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA